

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

450.000 euroko laguntzen deialdia egin da teknologian eta basoko produktuen transformazioan eta merkaturatzean inbertitzeko

Basoak ustiatzera eta lehenengo aldiz eraldatzera zuzenduta daude

Astelehena, 2019.eko urtarrilak 28

Nafarroako Gobernuak guztira 450.000 euroko laguntzen deialdia egin du teknologian eta basoko produktuen eraldaketan eta merkaturatzean inbertitzeko. Laguntza horiek baso-lanetako enpresei eta basoko produktuen industriei zuzenduta daude. Otsailaren 15ean amaituko da eskaerak aurkezteko epea.

Horrela dio Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garcíaren ebazpen batek, Nafarroako [Aldizkari Ofizialean](#) (NAO) argitaratutakoak.

Basoen titular diren pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak, izan daitezke onuradun, baita udalerrriak, haien elkarteak eta ETEak (enpresa txiki eta ertainak) ere, Nafarroan kokatuta badaude eta basoak ustiatzeko lanetan eta lehen transformazioan aritzen badira.

Diru-laguntza hauek 2014-2020 Landa Garapenerako Programan jasota daude eta haien azken helburua da baso-eremuen garapenean inbertitzea eta basoen bideragarritasuna hobetzea, baita Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan baso-aprobetxamendurako erabiltzen diren teknologiak, praktikak eta ekipamenduak hobetzeko jarduketetan inbertitzea ere.

Honako hauek dira kostu diruz lagungarriak: ondasun higiezinak eta haien kokaleku diren lurraldeak eraiki, eskuratu edo hobetzea (gehienez % 10); eta arkitekto, ingeniari eta aholkularien zerbitzu-sariak ordaintzea, baita ondasun higiezin horietako obrekin erlazionatutako bestelako azterlanak eta aholkularitza ere.

Hauek ere sartzen dira: makineria eta ekipamendu berria erostea; eta programa informatikoak, patenteak, lizentziak, markak, etab. eskuratu edo garatzea. Basoko zerbitzuetarako den makineria ez da diruz lagunduko.